

“Akitania Berria Euskadi Nafarroa 2020” proiektuen deialdia - 2. saioa - “Euroeskualdeen arteko kolaborazio estrategikoak”

“Akitania Berria Euskadi Nafarroa proiektuen deialdiaren” xedea agente sozioekonomikoen arteko elkarlanerako ekintzak sustatzea da, Euskadiko Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Aldundian eta Akitania Berriko Eskualdeko partaideen artean burutuko diren proiektu komunak egiteko.

Euroeskualdeko 2014-2020 estrategiak, 2014ko abenduaren 19an Hendaian aurkeztu zena, GECT-ren lehentasuneko ekintzak zehaztu zituen, eta lurraldeen arteko lankidetzari zuzendutako finantza-tresna nagusia ezarri zuen, Proiektuen deialdia, hain zuzen ere.

Batzordeak 2020an bi proiektu-deialdi egitea erabaki zuen, zeinetako bat Europako “Ezagutzaren ekonomia-berrikuntza-enpresen lehiakortasuna” strategiaren 2. Ardatzaren barruan, “Europa 2020” strategiaren baitan.

Bigarren saio honek metodo, produktu edo zerbitzu berritzaileak garatzeko proiektuak bizkortu eta hedatzeko helburua du, erreferentziako eragileak elkartuz, unibertsitateetatik hasita eta enpresa mundura arte, “euroeskualdeko lankidetzak estrategikoen” inguruan.

Proiektu deialdi honen aurrekontua (400 000€) LLET-aren 2020ko aurrekontari lotua da.

COVID-19 krisiak eragin egoerari aurre egiteko, proiektu-deialdi honek mugazgaindiko normaltasuna lagundu nahi dituzten eta mugaren hestearen ondorioak ttipitu nahi dituzten proiektuak lagundu nahi ditu.

I. DEIALDIAN SARTZEKO BALDINTZAK

1-Onargarritasuna

1.1) Proiektuek Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen hurrengo lehentasun estrategikoak betetzen dituztela frogatu beharko dute.

1.2) **Proiektuek hiru alderdi izan beharko dituzte, sorreratik hasita, eta gutxienez eskualde bakoitzeko partaide bat edukiko dute.** Pertsona juridiko, publiko edo pribatuek aurkeztu beharko dituzte proiektuak. Proiektuek eskualdeen arteko izaeraren sendotasuna eta elkarlana benetakoa dela frogatu behar dute. Ez dira onartuko lurralde bakoitzeko pertsona juridiko bera ordezkatzan duten entitateen arduradun bat baino gehiago tartean duten proiektuak (entitate nagusi eta entitate sekundario bitartez: egoitza soziala eta sukurtsala, enpresa eta filiala...).

1.3) Proiektuek nahitaez aipatu behar dituzte gainerako finantzazio-iturriak, eskatutakoak eta eskuratutakoak.

1.4) Covid-19 krisia dela eta, aurrez-aurre aurreikusitako jarduerak jarduera birtualak bilaka daitezke, proiektuaren aukeraketan eragin gabe.

2- Proiektuen deialdiaren gaiak

Euroeskualdeko estrategia eguneratuari esker 6 sektore ekonomiko nagusi identifikatu dira gure euroeskualdearen gunean lankidetzak garatzeko (2. ardatza: “Ezagutzaren ekonomia, enpresen berrikuntza lehiakorra”), hiru eskualdeetako espezializazio adimentsuko estrategiek jasotzen dituztenak:

- Sektore aeronautikoa, aeroespaziala, fabrikazio aurreratua eta autogintza
- Osasuna/ biosanataria
- Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaiak
- Energia berriztagarriak
- Itsasoko eta kostaldeko baliabideak
- Eraikuntza jasangarria, zura eta oihanak

Proiektuen deialdiaren 2. Saio honek hurrengo gako-sektoreak hartuko ditu:

- **Aeronautika, aeroespazioa, fabrikazio aurreratua, automobilgintza:** aeronautikan eta espazioko sektorean dagoen potentzial handiari onura ateratzea eta garraioari eta automobilgintzari, “fabrikazio aurreratuari”, material berriei, industriako diseinuari, garraio sistema adimentsuei (ITS), ibilgailu elektrikoari eta abarri lotutako beste sektoreekin lankidetzak aukerak bilatzea, mugikortasun jasangarriaren ikuspegitik.
- **Osasun sektorea eta biosanataria, Zilarrezko ekonomia:** Gaixotasun kronikoen arloan, zahartze aktiboan, norberaren autonomiari eustearen inguruan produktu eta zerbitzu berritzaileak garatzeko helburua duten eta gailu medikuak, urrutitiko osasun zaintza, Big Data eta gainerako tresnak kontuan hartzen dituzten proiektuak.
- **Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industria:** Euroeskualdeko berrikuntza sare bat sortzea nekazaritza eta nekazal eta basogintzaren sektorerako, nekazaritza ekoizpenari, basogintzari eta nekazaritzako elikaduraren industriari lotutako merkataritza garapena izan-dezaketen berrikuntza proiektu berriak abian jartzea, babes eta eraldatzeko teknikari dagokienez. Nekazaritza jasangarri eta biologikoaren neurriak, tokiko ekoizpena eta balio-kate higitzailea bateratzea eta baita balorazio gastronomikoa eta energia/osasunaren konbinazioa ere.
- **Energia berriztagarriak:** Hiru eskualdeen arteko lankidetzak ahalmena lantzea energia eolikoaren arloan (onshore, offshore), itsasoko energien, basoko biomasaren, energia fotovoltaikoaren arloetan, eta ekoizpenaren, energia metatzaren eta smart grid direlakoen arazoak bereziki lantzea.
- **Itsasoko eta kostaldeko baliabideak:** itsasoko industrien eta olatuko industrien garapena, elkarrekin sortzeko eta esperimentatzeko irtenbide berritzaileak eskala

handian, baita disruptiboak ere, baliabide natural bizidunen zein bizigabeen baliabideak erabiltzeari lotutako proiektu berritzaileak garatzearekin lotuak modu jasangarrian eta ikuspegi sozial, ekonomiko eta ekologikoaren ikuspegitik abiatuta.

- **Eraikuntza jasangarria, zura:** hiru ardatz nagusiren inguruko proiektu berritzaileen garapena: basogintza eta zuraren mugikortasuna; zura eta eraikuntza; zuntzak eta kimika ekologikoa, diseinu ekologikoa...

Competitiv'eko proiektuaren aurrerapenak kontuan hartuta (FEDER Interreg A POCTEFA 2014-2020 programak finantziatuta), Big Data eta Fabrikazio Gehigarria garatzen dituzten euroeskualdeko ekimenak aintzat hartuko dira bereziki.

3 - Aurrekontua

Deialdiak **400.000 euroko aurrekontua du guztira.**

Euroeskualdeak proiektuen guztizko zenbatekoaren % 50-era arte finantzatuko du. **Gutxienez 20.000€-ko eta gehienez 75.000€-ko.**

4- Hautespena

Euroeskualdeko lankidetzak estrategikoak hurrengo irizpideak bete behar dituzte (guztizko 20 puntuekiko baloratuko dira):

Proiektuaren ekintza-planaren egokitasuna: ekintzak egokiak izan beharko dute proiektuaren xedearekiko, ekintzen bideragarritasuna, ekintzen entregagaiak, aurreikusitako ekintzen egutegia, aurreikusitako emaitzen izaera iraunkorra.	5 puntu
Lankidetzaren egokitasuna: bazkideen arteko osagarritasuna, bazkideen proiektua garatzeko duten gaitasuna. Ehunaren aniztasuna eta parte hartze duten eragileen lurraldeko ordezkariak: Unibertsitateak, ikerketa-zentroak, clusterrak, lurraldeko eragileak, kontsularrak... Proiektua euroeskualde maila garatzea, non GECT-ren alderdi geografikoaren neurri berria barneratu den.	4 puntu
Aurrekontuaren egokitasuna ekintza-planarekiko: aurrekontuaren egokitasuna aurreikusitako ekintzekiko, plan finantzarioaren koherentzia bazkideen banaketaren egokitasuna proiektuaren ezarpenari dagokionez	3 puntu
Proiektuaren mugaz gaindiko dimentsioa: proiektuaren helburuetarako mugaz gaindiko lankidetzaren beharra, mugaz gaindiko lankidetzaren baliabide erantsia	4 puntu

Euroeskualdeak onartutako proiektuen kudeaketan zeharkako printzipioak (garapen jasangarriaren,

aukera-berdintasunaren eta bazterkeriarik ezaren printzipioak) betetzen direla behatuko du. Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak lehen hautaketan aukeratutako proiektuen sustatzaileekin elkarrizketak burutzeko eskubidea izango du, informazio gehiago eskuratu ahal izateko.

5- Txostenen igorpena

Arestian aipaturiko baldintzak betetzen dituzten pertsonak euren hautagaitza aurkeztu beharko dute, eskatuko zaizkien dokumentuekin batera, erregistro digitaleko prozeduraren barruan, **2020ko azaroaren 5eko arratsaldeko 12:00ak baina lehenago**.

Jaso izanaren agiria igorriko da posta elektroniko batean, erregistroa burutu dela egiaztatzeko.

Ezingo da txostenik bidali paperean.

Osorik bete ez diren txostenek 7 eguneko epea dute betetzeko jakinarazpenetik hasita. Epe hori iraungi ondoren, ez da txostenik onartuko.

Igortzen denean partaide guztien sinadura ez duten txostenek (konpromisoa) epe bera izango dute sinatua izateko.

6- Aurkezpena

Proiektuak telematikoki aurkeztuko dira Euroeskualdearen webgunean (www.euroregion-naen.eu), inprimaki elektroniko bat betez eta honako dokumentu hauek atxikiz:

- Proiektuaren fitxa, Euroeskualdearen hiru laneko hizkuntzetan (euskara, gaztelania eta frantsesa)
- Bazkideek sinatutako konpromiso agiria (izenpedura elektronikoa edo skaneatua).
- Bazkideek sinatutako finantzaketa-plana (izenpedura elektronikoa edo skaneatua).

Bidalitako dokumentuak beren oinarrizko formatuan kontserbatuak izan beharko dira eta Euroeskualdeko agenteei esku ezarriak galdera egiten balitz.

Proiektua hautatua izanez gero, bazkideek honako dokumentu hauek ekarri beharko dituzte:

- Kontu-korrontearen ziurtagiria, nazioarteko formatuan (IBAN eta BIC),
- Gizarte-segurantzaren ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.

II. DIRU-LAGUNTZAK

1- Onuradunak:

Akitania-Berria Euskadi Nafarroa dirulaguntzen deialdian parte hartu dezaketen onuradunak pertsona juridikoak dira, bai publikoak bai pribatuak, beste pertsona juridikoak batzuekin, nola publikoak hala pribatuak, eskualde arteko lankidetzak proiektuak burutzen dituztenak, Akitania Berrian, EAEn edota Nafarroako Foru Erkidegoan kokatuta daudenak, eta Akitania-Berria Euskadi Nafarroa deialdiko dirulaguntza bat jasotzeko eskaera aurkeztu dutenak.

Onuradunen egoitza soziala edo egoitza Akitania-Berrian, EAEn edo Nafarroako Foru Erkidegoan egon beharko da.

Onuradunen egoitza soziala edo helbidea Akitania Berrian, Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroako Foru Erkidegoan egongo da.

2- Kasu zehatzak:

Proiektuen deialdiaren xedea ez da Akitania Berriko, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko Eskualdeetako Kontseiluarekin euren esku-hartzean adostu ohi diren finantzazio-iturriak ordezte. Halere, lankidetzaren proiektuaren eskualdeen arteko izaerarekin zuzenean lotutako hainbat gastu kontuan har daitezke.

Proiektuek Akitania Berriko, Euskal Autonomia Erkidegoko edota Nafarroako Foru Erkidegoko Eskualdeko Kontseiluak jaulkitako laguntza jaso ahalko dute, betiko laguntza-tresnen bitartez, hurrengo baldintzekin:

- laguntzen osoko zenbatekoa ezingo da proiektuaren zenbatekoaren % 50 baino gehiago izan.
- proiektuaren ezaugarriek, helburuek eta finantzazioak laguntzen osoko zenbatekoa justifikatuko dute.

3- Diru-laguntzen gaineko zergak eta diru-laguntzek estal ditzaketen gastuak

Euroeskualdeak adostu du diru-laguntzen gehienezkoa, proiektuen deialdiari dagokionez, proiektuaren zenbateko osoaren % 50koa izatea.

BEZ kanpoko egiturei dagokienez, partaidetza kalkulatzeko zergen zenbateko osoan oinarrituko da, eta onuradunak laguntza jaso duenetik hiru urteko epean BEZ hori berreskuratzeko konpromisoa izango du. Partaideek proiektua burutzean sortutako gastuen arabera kalkulatu da guztirako kostua. Partaideek proiektua burutzeko egin dituzten finantza-ekarpenak nahitaez justifikatu beharko dituzte (autofinantzazioa eta bestelako finantzazio publiko eta pribatuak).

Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko Batzarrak, LLET-ren estatutuetan oinarrituta, finantzazio-tasa aldatzeko eskubidea du, finantzazio publikoko esku-hartzean bereziki, eta baita proiektuan diru-laguntzek estal ditzaketen kontzeptuak zehazteko ere, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Euroeskualdeko Batzarrak lankidetzako aurrekontuak ere doitu ditzake, proiektuen deialdian esleitutako finantza-zenbatekoarekin bat egin ditzaten, bideragarriak izateko:

- 40.000 € eta 100.000 € bitarteko BEZ duten aurrekontuko lankidetzaren kasuan, % 15 murriztu ahal izango da;
- 100.000 € baino gehiagoko BEZ duten aurrekontuko lankidetzaren kasuan, aurrekontua % 20a arte murriztu ahal izango da.

Honako hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- Prestakuntza gastuak (proiektu osoaren gastuen %10a gehienez)

- Langileen gastuak
- Proiektuaren komunikazio gastuak
- Lekualdaketa gastuak
- Kanpoko zerbitzuen gastuak

Proiektuaren % 20 edo gehiago norberak finantzatu beharko du. 4-

4- Erabakia

Euroeskaldearen arauetan oinarrituta, Batzordeak hartuko ditu diru-laguntzak esleitzearen inguruko erabakiak, laneko batzorde mistoei galdetu ondoren, zein txostenak igortzeaz arduratuko diren Batzarreko kideez osatuta egongo den nagusiki. Eskatzaileei jakinarazpen ofizial bidez jakinaraziko zaie erabakia.

Aurreraketan, Euroeskualdeak tematikak orekatuko ditu. Aurreraketa instrukzioaren bukaeran jasoko den notaren arabera egingen da.

III. PROIEKTUEN EGIKARITZA

1- Proiektuen egikaritzarako epea

Erabakia jakinarazten denetik **18 hileko epean egin beharko da proiektua**. Ez dira kontuan hartuko hautespen prozesuaren aurretik bukatuko diren proiektuak.

2- Baldintza ekonomikoak

2.1) - Adostutako diru-laguntzak proiektuen deialdi (lehiaketa) bitartez esleitutako diru-laguntzak dira. Partaideen artean banatuko dira eragiketaren finantzazio osoko planaren arabera, Euroeskualdeko Batzarraren eskutik, eta laguntza esleitzeko baldintzak beteko dituzte.

2.2) - Diru-laguntzak onuradunei helaraziko zaizkien arauen baldintzen arabera ordainduko dira, - hau da, lehenengo ordainketan % 40 ordainduko da hitzarmena sinatutakoan, eta % 60, ondoren, proiektua ixten denean, gastuen agiriak aurkeztu ondoren- eta agiri bidez egiaztatutako benetako gastuekiko proportzionalak izango dira, eragiketaren ezaugarriak eta aurreikusitako kostu totalarekiko, partaide bakoitzeko, eta proiektuen deialdi honetan aurkeztutako txostenean bildutakoekiko.

3- Jarraipena, ebaluazioa eta kontrola

3.1) Esleitutako dirulaguntzen onuradunek hitzarmenean zerrendatutako ziurtagiri guztiak aurkeztu beharko dituzte eta, bereziki, gastuak eta diru-sarrerak zehaztuko dituen egikaritze txostena eta proiektuaren garapenaren deskribapena aurkeztu beharko dituzte. Jazarpen eta justifikazioak (partzialak eta bukaerakoak) modu elektronikokan egin beharko dira. Arau fiskalen arabera, elektronikoki bidalitako dokumentuen originalak 6 urtez gordeak izan beharko dira.

3.2) Programatutako ekintzen exekuzioari modu esanguratsuan eragiten dioten ekintza guztiak berehala Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeari jakinarazi beharko zaizkio.

3.3) Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak eskubidea gordetzen du eskura dituen baliabideetan oinarrituta ematen dituen kopuruen esleipena eta erabilera kontrolatzeko. Onuradunek ezingo diete uko egin kontrol horiei. Arestian deskribatutako betebeharrak ez betetzeak dirulaguntza deuseztatzea edo kentzea ekarriko du, eta baita Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeari ordura arte jasotako kopuruak itzuli beharra ere, eskura izan ditzakeen beste bitarteko batzuen ezarpenari kalterik egin gabe.

4- Publizitatea

Onuradunek Euroeskualdearen laguntza aipatu beharko dute sustapeneko edo informazioko dokumentu guztietan, Europar Batasuneko laguntza denean ere.

Publizitateari buruzko baldintza hau betetzen ez bada, diru-laguntza baliogabetu edo itzultzea eskatu ahal izango da.